

## ¡ATOZTE MALKUAK BEGIYETARA!

(ON ANTONIO ARZÁC JAUNARI DONKITUA)

Donostiyako uri ontatik  
Ez bizirot apartian,  
Bi eche churi alkarren aurrez  
Daude zelaicho batian,  
Pake santuan bizitu dira  
Biyetan oraiñ artian.....  
¡Kristabak negar egiñ lezake  
Zer pasa dan jakitian!

Baserri churi bi ayetako  
Guraso maitagarriyak,  
Seme banakin bizitzen ziran  
Ederturikan zelaiyak;  
Lan geyegiyak minberatubak  
Zituzten abek gerriyak,  
Baña laguntzik etzun ukatzen  
Seme maitien sasoiyak.

¡Bi gazte ayek izan leikien  
Sasoyik ederrenian  
Ta gurasuak arkituriban  
Abechen biarrenian.....  
Kendu dizkate ta eramanik  
Orren aparte urian,  
Negarrez daude guraso ayek,  
Faltarik aldamenian....!

¿Non dago gure jayotz erriya?  
Oraiñ an daude esanaz;  
Ta begi ayek bustitzen dira  
Laztan gozo bat emanaz...  
¡Bi biyotz ayek purrukaturik  
Naigabiaz eta penaz  
Oroitutzian baserri artan  
Semiaren zai daudenaz!

Lau illabete izango dira  
Gazte ayek an daudela,  
Españiaren mesedientzat  
Iñuri nayan odola....  
Ta gurasuak negarrez lertzen!  
Malko dariyo.... ¡ai nola...!  
Beste mundura laister dijuaz  
Eziñ bizirik iñola.

Semiaren zai, penaz beterik  
Guraso abek il dira!.....  
(Oroitutzian negarra neri  
Etorritzen sait begira!)  
*Kuba* ortatik bi seme ayek  
Egiten badute jira,  
Zori gaitzian sartuko dira  
Utsa dagon baserrira...!

RAMÓN GELBENZU ETA IRIBAR.<sup>1</sup>

(1) «Euskaldun Fedea»-koa.